**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **06. Transportes y Movilidad Sostenible**<br>**06.** ***Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria*** | **05.** Mugikortasun Jasangarria<br>**05.** *Movilidad Sostenible* | **441.122** Mugikortasun Jasangarria<br>**441.122** *Movilidad Sostenible* |

Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Zuzendaritzak garraio publikoaren modalitatea eta moduak sustatzen ditu, erosotasunaren eta eraginkortasunaren arabera, baina zerbitzu publikoaren iraunkortasuna eta eraginkortasuna ahaztu gabe. Horretarako, alderdi hauek izaten ditu ardatz:

- Kostu sozial gutxien duten garraiobideak eta intermodalitatea sustatzea, eta, bereziki, inpaktu txikiko edo inpakturik gabeko garraio-sistemak, hala nola bizikletaz edo oinez egindako joan-etorriak eta kalitatezko garraio publikoa.
- Bizikletentzako mugikortasuna sustatzea, erabiltzaileak ardatz hartuta.
- Bizikletentzako bideen eta atsedenlekuen hobekuntzak aztertzea.
- Oinezkoen eta txirrindularien arteko bizikidetza bermatzeko neurriak ezartzea, baldintza seguruen eta erakargarrien bidez.
- Mugikortasun aktiboa sustatzeko kanpainak bultzatzea, osasun-zerbitzuekin eta udalekin koordinatuta.
- Garraio publikoaren edo motorrik gabeko moduen bidez eskura daitezkeen aisialdiko eremuei buruzko dibulgazioa.

Lan hauek egin dira 2022. urtean zehar:

- Bizkaia BizkaiBizi bizikleta zerbitzu publikoa kontratatzeko prozedura hasi eta amaitu zen, abenduan esleituta.
- Bidegorrietan eta errepideetan bizikletari erabilera egokia emateko sentsibilizazio kanpaina egin zen.

La Dirección de Movilidad Sostenible fomenta la modalidad y formas de transporte público en función de su comodidad y eficacia pero sin olvidar la sostenibilidad y la eficiencia en la prestación del servicio público. Para ello se centra en los siguientes aspectos:

- Fomentar  los modos de transporte con menores costes sociales y la intermodalidad,  y en particular, aquellos sistemas de transporte de bajo o nulo impacto, como los desplazamientos en bicicleta o a pie, y el transporte público de calidad.
- Promover la movilidad ciclable centrada en las personas usuarias.
- Estudiar mejoras en las vías y  zonas de descanso de las rutas ciclables.
- Implantación de medidas que permitan asegurar la coexistencia entre peatones y ciclistas mediante condiciones seguras y atractivas.
- Impulso de campañas de promoción de la movilidad activa en coordinación con los servicios sanitarios y ayuntamientos,
- Divulgación sobre áreas de ocio y esparcimiento accesibles mediante transporte público o modos no motorizados.

Durante el año 2022 se han realizado los siguentes trabajos:

- Se inició y finalizó el procedimiento de contratación del del servicio de bicicleta pública de Bizkaia BizkaiBizi, adjudicándose en el mes de diciembre.
- Se hizo una campaña de sensibilización sobre el uso correcto de la bicicleta en bidegorris y en calzada.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **06. Transportes y Movilidad**<br>**06.** ***Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria*** | **05.** Mugikortasun Jasangarria<br>**05.** *Movilidad Sostenible* | **441.122** Mugikortasun Jasangarria<br>**441.122** *Movilidad Sostenible* |

- Bizikletak mantentzeko eta konpontzeko hogeita hamazortzi estazio ezarri dira.

- Eskola-ingurunean auto elektrikoetarako motorren soluzioak garatzeko Green Power ekimenean parte hartu da.

- Dirulaguntza hitzarmenak sinatu dira 6 udalekin, bizikleten aparkaleku segurua egokitu eta instalatzeko lanak finantzatzeko. Lan horiek 2023. urtean zehar egin beharko dira.

- Mugikortasun jasangarriko stand bat jarri eta artatu zen Umeen Gabonetako Parkean, BECen.

- Se han instalado treinta y ocho estaciones para mantenimiento y reparación de bicicletas.

- Se ha participado en la iniciativa Green Power para desarrollo de soluciones de motores para coches eléctricos en el entorno escolar.

- Se han suscrito convenios subvencionales con 6 ayuntamientos para financiar el acondicionamiento y la instalación de aparcamientos seguros para bicicletas, trabajos que deberán hacer durante el año 2023.

- Se instaló y se atendió un stand de Movilidad Sostenible en el Parque Infantil de Navidad ubicado en las instalaciones del BEC.